

BERRIKUNTZA ERAGILEA

Badalab hizkuntza berrikuntzako laborategia da. Bere egitekoa, laborategi izaera horretatik, etorkizunean, euskaratik eta euskaraz ere bizitzeko hautua egingo duen hiztun komunitatea elikatzea da. Deialdi honen bidez diseinuari, bitartekaritzari eta gizarte berrikuntzari lotutako ezagutza duten profilak bilatzen dira batez ere. Lanpostuaren funtzio nagusia zuzendariari laborategiaren jarduna garatzen laguntzea izango da.

1. Nazionalitatea:

- Europar Batasuneko edozein estatu kideetako herritarra izatea.
- Nazionalitatea edozein dela ere, Europar Batasuneko estatu kideetako herritarren ezkontide izatea, betiere zuzenbidez bananduta ez badaude. Era berean, baldintza berberetan parte hartu ahal izango dute beren ondorengoek eta ezkontidearen ondorengoek, baldin eta hogeita bat urtetik beherakoak badira edo adin horretatik gorakoak eta mendekoak badira.
- Betekizun hau betetzen dute Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunen aplikazio-eremuan dauden pertsonak, langileen zirkulazio askea aplikatzekoa denean.
- Halaber, aurreko lerrokadetan jasota ez dauden baina legezko bizilekua Espainian duten atzeritarrek.

2. Adina: hamasei urte beteta izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina ez gainditzea.

3. Zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.

4. Diziiplina-espediente bidez edozein administrazio publikoren zerbitzutik, administrazio horiei lotutako edo haien mendeko organismo publikotatik edo autonomia-erkidegoetako konstituzio-edo estatutu-organismoetatik bereizita ez egotea, eta ebazpen judizial irmoaren bidez enplegu edo kargu publikoetarako desgaitasun absolutu edo berezia ez izatea.

5. Beste estatu bateko herritarra izanez gero, desgaituta edo egoera baliokidean ez egotea, eta diziiplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea, bere estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragotziko dionik.

6. Unibertsitate gradua edo Doktoretza, Lizentzia, Ingeniaritza, Arkitektura edo baliokidea

7. Hizkuntzak eskakizunak: Euskara C1 maila. Ingelesa B2. Egiatzen-tituluak aurkeztu beharko dira.

Lanpostua hautaketa prozesu baten bidez ebaztuko da. Prozedurak hiru fase izango ditu:

1. fasea: Azterketa teoriko-praktikoa (40 puntu)
2. fasea: Azterketa teoriko-praktikoaren defentsa eta elkarrizketa pertsonala (40 puntu)
3. fasea: Merezimenduen balorazioa. (20 puntu)

Azterketa prestatzeko erabiliko den bibliografia eta baloratuko diren ezaugarriak zein merezimenduak, baita azterketen datak eta jarraibideak ere, Badalabek zuzenean jakinaraziko dizkie onartutako hautagaiei.